# ESKOLA KIROLA

## 2022/2023 DIRU-LAGUNTZARAKO ESKABIDERAKO ESKULIBURUA


| | |
|---|---|
| 0. SARRERA ETA IDENTIFIKAZIOA | 2 |
| a) Erakundearen ordezkariaren ziurtagiria | 2 |
| b) BakQ, NAN elektronikoa edo baliokidea | 4 |
| 1. ESKABIDEAREN DATUAK | 3 |
| a) Datu orokorrak | 3-5 |
| b) Banku-helbideratzea | 6 |
| c) Erakundeko sarrerak | 7 |
| d) Baimenak eta aitorpenak | 8 |
| 2. ERANTSI DOKUMENTAZIOA | 9 |
| 3. BIDALKETA ETA SINADURA | 10 |
| 4. ONDOREN ERANTSI DOKUMENTAZIOA | 11 |

# 0. SARRERA ETA IDENTIFIKAZIOA

Sarbidea entitatearen izenean dagoen ziurtagiri elektronikoaren bidez egiten bada, honela sartu beharko duzue:



# 1. Eskabidearen datuak

Hurrengo pantaila agertuko zaizue, eta bertan erakundearen IFZ eta izena sartuko dira, zuzen-zuzenean, “Interesdunaren datuak”-en laukietan.



Egoitzara diru-laguntza eskatzera doan erakundearen ordezkariaren ziurtagiriaren bidez (BakQ, NAN elektroniko) sartzen bazara, honela sartu beharko duzue (kasu honetan ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko da):




Pantaila honetan, ordezkatzen duzuen erakundearen datuak bete beharko dituzue:



Datu orokorrak bete ondoren, banku-helbideratzeari buruzko datuen pantailarekin jarraituko dugu.




Banku-helbideratzeari buruzko datuak bete ondoren, "Errenta-entitatea" pantailan sartuko gara, eta bertan erakundearentzat aurreikusitako urteko diru-sarreren adieraziko dira, eta, hala badagokio, adierazitako bi baldintzak onartuko dira. Ondoren, hurrengo botoia sakatu:



"Baimena eta aitorpenak" izenburuko hurrengo pantailan aitorpen hauek irakurri eta klikatu beharko dituzue:




## 2. Erantsi dokumentazioa

Ondoren "Erantsi dokumentazioa" fitxara joango gara. Adierazten diren dokumentuak ez dira nahitaezkoak eta, aurretik aurkeztu ez badira, kasu hauetan sartu ahal izango dira:

a) Ordezkaritzaren egiaztagiria: Eskabidea dirulaguntza eskatu behar duen erakundearen izenean egin bada, erantsi egin beharko da.

b) % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna dela-eta diru-laguntza handiagoa jaso dezaketen teknikari eta jokalarien kasuan.

c) Kudeaketa integralaren hobekuntzarekin lotuta dauden erakunde ofizialek emandako ziurtagiriak (bikaintasunarekiko konpromisoaren diploma ez badira soilik) dituzten erakundeak.

| 1 Eskaera | 2 Erantsi dokumentazioa | 3 Bidalketa eta sinadura |
|---|---|---|

## Aurkeztu beharreko dokumentazioa

| Dokumentua | Erantsi |
|---|---|
| Ordezkaritzaren egiaztagiria | |
| Egiaztagiria - Desgaitasuna izateagatik diru-laguntza gehiago jaso dezaketen teknikariak edo jokalariak badira: %33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa duela egia... | |
| Kudeaketa integralaren hobekuntzako ziurtagiria - Kudeaketa integralaren hobekuntzarekin lotutako beste erakunde ofizial batzuek emandako ziurtagiriak eta haie... | |
| Beste atal batzuetan ez dagoen dokumentazioa | |

Dokumentazio egiaztagarrian, ez da ezer hautatu behar, adierazitako datuak egiaztatzeko aukera ematen bada. Aurka eginez gero, eskatutako dokumentazioa erantsi beharko da.

## Dokumentazio egiaztagarria

### Aurka ez egitea

Elektronikoki eskatuko dira prozedura hau ebazteko beharrezkoak diren datu hauek, aurka zaudela adierazten ez baduzu (39/2015 Legearen 28.2 artikulua eta 2016/679 Erregelamenduaren 6.1.e artikulua)

| ☐ Aurka nago | Dokumentua | Erantsi |
|---|---|---|
| ☐ | Banku-helbideratzearen fitxa* | |
| ☐ | Zerga-betebeharretan egunean egotearen ziurtagiria* | |
| ☐ | Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egotearen ziurtagiria* | |

Dokumentu bakoitzaren tamaina ezin da 100 megabyte baino handiagoa izan. Ez dira exe eta msi luzapena duten dokumentuak onartzen.

Aurrekoa | Hurrengoa

# 3. Bidalketa eta sinadura.

Azkenean, "bidalketa eta sinadura" fitxan diru-laguntzarako eskabidearen datu guztiak jasotzen dituen laburpena agertuko da. Behin datu horiek zuzenak direla egiaztatu eta gero, "sinatu" botoia sakatu eta berriz sartu zuen pasahitza. Dena behar bezala joan bada, pdf fitxategi bat eskuratuko duzue, dagokion erregistro-zenbakiarekin.



1473 - Eskola kiroleko programa eta HEZIKI: diru laguntza.

1473 Programa de Deporte Escolar y HEZIKI: subvenciones.

ESKABIDEAREN HASIERA
INICIO SOLICITUD

Datu eskaerak / Datos solicitud

Datu orokorrak / Datos generales

Interesdunaren datuak / Datos de la persona interesada

IFZ / NIF

Izen-abizenak edo sozietatearen izena / Apellidos y nombre o razón social

NOMBREINTERESADO APELLIDO1INTERESADO APELLIDO2INTERESADO

# 4. Diru-laguntzarako eskabidearen ondoren erantsi dokumentazioa

Diru-laguntzarako eskabidearekin batera aurkez daitezkeen agirietako bat erantsi ezin izan baduzue (adibidez: ordezkaritzaren egiaztapena, banka-helbideratzearen fitxa...), ondoren erantsi ahal izango duzue. Horretarako, “2022-2023 denboraldian Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzen duten erakundeentzako foru diru-laguntzak” deritzon prozeduran sartu beharko zarete, egoitza elektronikoan: (https://www.ebizkaia.eus/es/inicio).

